

laboralak



irakasle eta hezitzaileak

1-ERRELEBO KONTRATOA

Apirilak 1ean ireki eta maiatzaren 13ra arte irekita egongo da errelebo kontratua eskatzeko epea, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- NANaren fotokopia
- Eskaera inprimakia betea
- Bizitza laborala
- Azken 15 urteetako kotizazio oinarriak.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK HONAKO HAUEK DIRA:

-60 urte eta 6 hilabete 2011ko abenduaren 31 baino lehenago betetzea.

URTEA	ADINA	ANTZINATASUNA ENPRESAN	KOTIZATUTAKO URTEAK	ERRETIRO PORTZENTAIA	LANALDI PORTZENTAIA
2011	60 urte eta 6 hil.	6 urte	30 urte	%75	%25

Mutualistak (1967 baino lehen kotizatu dutenak) direnen kasuan, baldintza zaharrak aplikatzen dira **60 urte** betetzen dituztenean

ERRELEBO KONTRATUAREN TRAMITAZIOA GIZARTE SEGURANTZAN.

-Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak dei egiten dio langileari adieraziz prest dutela Gizarte Segurantzaren aurkeztu beharreko dokumentazioa (besteak beste, ordezkoaren kontratua jardun osoz).

-Hezkuntzak prestatutako dokumentazioarekin batera, NANaren fotokopia, Famili Liburua eta kopia, senar-emazte- seme-alaben NANaren fotokopiak eta pentsioa eskatzeko inprimakiak beteta aurkeztu behar ditu interesatuak Gizarte Segurantzaren.

-Hilabete baten inguruan jasoko du langileak Gizarte Segurantzaren erabakia: zein datatik aurrera duen eragina, zein portzentaia den jubilazioa, zenbateko pentsioa....

-Interesatuak Gizarte Segurantzatik jaso duen erabakiaren kopia bat Lurralde Ordezkaritzara igorri eta, bere kasuan, erretiro saria eskatuko dio Hezkuntzari.

BEHIN 65 URTE BETETAKOAN:

-Erabateko erretiroa. Berrirori ere tramitazio guztia egin behar da aurrez ezer egin

izan ez balitz bezala.

-Hezkuntzak enpresari dagokion dokumentazioa prestatu behar du.

-Gizarte Segurantzaren errelebo kontratua tramitatzeko prozedura eta dokumentazioa berdina jarraitu behar da.

-Hilabete baten buruan langileak Gizarte Segurantzaren erabakia jasoko du. Errelebo kontratuan emandako denbora 100% ean lan egin izan balitz bezala hartuko da pentsio berria kalkulatzeko.

-Erabaki honen kopia bat igorri Hezkuntzara eta bere kasuan, falta den erretiro saria eskatu.

-ITZARRIra egindako ekarpenak eskuratzea: Gizarte Segurantzaren erretiro erabakiaren kopiarekin batera, NANaren fotokopia, aurrezki edo bankuaren agiria interesatuaren kontu korrontearen zenbakiak baieztatzen dituen eta eskaera egiteko inprimakia beteta, posta zertifikatuaz igorri helbide honetara: ITZARRI, San Antonio 2-01005 Vitoria-Gasteiz.

Argibide gehiagorik, pentsioaren kalkulua edo bestelakorik nahi izanez gero, jarri harremanetan gurekin.

2-BIRBAREMAZIOA (behin behineko datak)

Epea: Maiatzaren 3tik 11ra bitartean izango da eta Aldaketak egin eta akatsak zuzendu ditzakezue+

Behin-behineko zerrendak: maiatzaren 25ean argitaratuko dira.

Behin-betiko zerrendak: ekainaren 13an argitaratuko dira.

3-HEZIKETA BEREZIKO LEKU ALDATZE LEHIAKETA

-Eskaerak egiteko epea: apirilaren 1etik maiatzaren 6arte.

Eskaerak eredu normalizatua erabiliz egin beharko dira eta eskatzen diren arteko lanpostuen lehentasuna adierazi beharko duzue. Eskabidearekin batera NAN kopia aurkeztu beharko da.

Lehiaketa hau erabakitzeko erabiliko diren arauak, gaur egun indarrean dagoen Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileentzako lan-hitzarmenak bere 14. artikuluan jasotakoak izango dira. Batzorde Parekideak izandako bileran ondorengo **esleipen -irizpidea** ezartzen du:

-Beren esparruan soberakina den langilea

-Antzintasuna enpresan finko modura

-Langilearena ez da barrutian aritzea, langilearen barrutien soberakinak daudenean.

-L.E.Z/Sarrera nota.

-Adin handiagoa.

Eskaera egiteko eredu normalizatua eta lehiaketaren lanpostu zerrenda bidaltzen dizkizuegu. Hala ere, lanpostu zerrenda orientagarria da eta horregatik lehiaketaren esleipeneko eraginetarako 2011ko maiatzaren 23an egongo diren lanpostu hutsak hartuko dira. Eskaeran eskeinitako lanpostuaz gain eta libre gelditzen diren lanpostuak leku-aldatzearen bidez bete ahal izateko, beti lehentasuna adieraziz,

beste barrutiak aukeratu ahal izango dira.

Gogoratu lehiaketan parte hartzeak esleitutako lanpostura aldatzera behartzen duela.

4-IRAKASLE LABORALEN SEXENIOAK.

Dakizuen moduan ELA irakaskuntzako langileen hierarkizazioaren aurka egon da eta horrela jarraitzen du. Beraz gure artean irakaskuntza karrera eta honi lotuta irakasle batzuentzat lansari bereziak (sexenioak) ezartzearen aurka.

Hala ere, Hezkuntza sailak eta CC.OO.-ek honela inposatu dute, baina soilik irakasle funtzionarioentzat eta ez irakasle laboralentzat, hitzarmenak lansari berdinak izan behar ditugula dioen arren.

Aurrez esan moduan, sexenioen inposaketa eta diskriminazio honi aurre egin eta guri dagokigun diru hau gure esku gera dadin, ELAk gatazka kolektiboa sartuko du. Epaiketa egin aurreko adiskidetze saiakera (PREKOA) martxoaren 28an izan zen. Bertan Hezkuntza Sailak hitzarmen berriaren negoziaketan gai hau sartuko duela esan arren adostasunik gabe amaitu zen saiakera eta orain epaiketa data irten zain geratzen gara.

Epaietak arrazioa emango baligu eta Hezkuntza Sailak diru hori langileen esku utzi nahi ez, norbanako demandak egitea beste biderik ez litzaiguke geratuko. Hala izatekotan adieraziko dizkizuegu jarraitu beharreko pausoak.

5-SOLDATA MURRIZKETEN BANAKAKO ERREKLAMAZIOAK

Hezkuntzako langile guztioi inposatu diguten soldata murrizketei aurre egiteko, lan-legepeko langile guztien kasuan gatazka kolektiboa aurkeztu genuen epaitegietan. Hasiera batean martxoaren 1erako epaiketa data jarri zuten arren epaiketa atzeratu egin da eta data berria eman zain gaude.

Kasu honetan ere, epaitegiek arrazioa emango baligute eta Hezkuntza Sailak diru hori langileen esku utzi nahi ez, norbanako demandak egin beharrean aurkituko gara. Hala egin behar izatera, azalduko dizuegu nola egin eta zein pauso jarraitu.

Zalantzarik baduzue jar zaitezte gurekin harremanetan.

**IRAKASLE LABORAL ETA HEZITZAILEENTZAT MURRIZKETARIK EZ!
HITZARMEN ETA LAN-BALDINTZA DUINAK!
BENETAKO NEGOTIAZIOA!
KALITATEZKO HEZKUNTZA PUBLIKOA!**